



## **JARRAIBIDEAK, Hezkuntza sailburuordeak emandakoak, EAEko Ikastetxe Publikoei deialdia egiteko honako helburu honekin: 2009-2010 ikasturtean Sailaren Lehentasun Ildoak garatzeko programekin zerikusia duten hainbat proiektu gauzatzeko eskaera egitea.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Hezkuntza Berritzatzeko eta Prestakuntzako Proiektuak bultzatzen ari da unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, bai deialdi berezien bidez, bai zuzenean, ikastetxeetako antolaketa edo irakaskuntza hobetuko duten aldaketak egitera bideratutako jarduerak proposatuz.

Hezkuntza Administrazioetik hezkuntza berritzatzeko esparru orokor bat ezarri zen 2007-2010 aldirako, hezkuntza-printzipio hauei erantzuna emateko helburuarekin:

—*Inklusibotasuna, pertsona guztiei aurrera egiten laguntzeko, desberdintasun-egoerak gaindituz eta ikasle bakoitzari behar bezala erantzunez, gizabanakoen aniztasuna eta kultura-aniztasuna kontuan hartuta.*

— *Kalitatea*, ikasteko sustagarri ugari izango dituzten eskola-testuinguruak, dinamikoak eta etengabeko hobekuntzako proiektuak izango dituztenak.

— *Etorkizunaren ikuspegia*, ikasleak prestatzeko, ahalik eta bermerik handienarekin egin diezaioten aurre bizi-proiektuari.

Aurkeztutako proiektuak era askotakoak dira berriazko helburuak eta esku hartzeko modua kontuan hartuta, baina helburu bakarra dute: ikastetxeetako heziketan ikasleen heziketa integralaren mesederako izango diren hobekuntzak egiteko aukera ematea. Ikastetxe bakoitzak, bere beharren eta asmoen arabera, erabilgarri dituen edo lor ditzakeen baliabideen arabera, eta bere hezkuntza-proiektuan oinarrituta, behar diren erabakiak hartuko ditu bere jarduera-plana gauzatzeko, eta plan horretan ikastetxean garatzen diren proiektu guztiak jasoko eta koordinatuko dira, hain zuzen ere, guztiak bateratu eta integra daitezten eta eragin positiboa izan dezaten eskola-komunitate osoan. Eginkizun horretan Berritzeguneen aholkularitza eta laguntza izango dute, eta, batez ere, ikastetxeei hobekuntza-proiektuetan laguntzen ahaleginduko dira.

Hezkuntza sailburuordeak emandako jarraibide hauen bidez ikastetxe publikoentzat proiektuak konbokatzen dira 2009-2010 ikasturterako.

### **Lehenengoa.- Deialdiaren helburua**

2009-2010 ikasturtean ikastetxe publikoentzat ondoko berriazko proiektuak deitzea:

- P01- Kultura Artekotasuna sustatzeko
- P02- Hizkuntza Indartzeko
- P03- Eskola-laguntza programa ezartzeko
- P04- Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko (HBEP)
- P05- Curriculum Aniztasuneko Taldeak onartzeko
- P06- Kalitatea Hezkuntzan
- P07- Ikastetxearen autonomia
- P08- Ikastetxeko elkarbizitza-plana egiteko eta Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko
- P09- Ikas Komunitateak
- P10- KT Ikastetxe Eredua
- P11- Irakaskuntza eleanitza Bigarren Hezkuntzan
- P12- Zientzia Hezkuntza



Proiektu bakoitza garatzeko baldintzak jarraibide hauetako II. Eranskinean arautzen dira.

Berariazko proiektuak onestea bateragarri izango da irakasleak berariazko esparruan prestatzeko jarduerak eskatzearekin, beti ere jarduera horien helburua proiektuaren helburuekin bat badator eta jarduerak Sailak berak eskaintzen ez baditu.

### ***Bigarrena.- Banaketa lurraldeen arabera***

II. Eranskinean xehatutako proiektu-mota bakoitzean EAEn gehenez ere zenbat proiektu aukeratu ahal izango diren zehaztuko da; aukeratzen direnak deialdira aurkeztu diren ikastetxe publikoen artean banatuko dira lurraldeen arteko proportzio-irizpidearen arabera.

Lurraldeetako batean berez izendatuta dituenak baino eskaera gutxiago onetsiko balira, gainerakoak proportzioan esleituko zaizkie beste lurraldeei.

### ***Hirugarrena.- Betekizunak***

Eskaera onesteko jarraibide hauetako II. Eranskinean xehatutako proiektu-mota bakoitzean zehaztutako baldintzak bete beharko dira. Nolanahi ere, honako hauek izango dira guztietan beteko diren baldintzak:

- a) Proiektua OOGk onetsiko du.
- b) Ikastetxeko OOGk proiektua, aukeratuko balitz, ikastetxearen urteko planean txertatzeko erabakia hartuko du.
- c) Proiektuaren ardura nork hartuko duen erabakiko da. Pertsona horrek baldintza egokiak beteko ditu: ikastetxea ongi ezagutzea, sentsibilitatea, inplikazioa, trebakuntza eta prozesua suspertzeko, koordinatzeko eta bideratzeko gaitasuna. Pertsona horri edo horiei, berariazko proiektuan hala jasota balego, proiektua gauzatzeko ordu-kreditua emango zaio edo zaie.
- d) Proiektuaren arduradunak dagokion Berriztatze Programatik proposatzen den berariazko prestakuntzan parte hartzeko konpromisoa hartuko du, izendatutako eginkizunak errazago bete ahal izateko.
- e) Proiektu-mota bakoitzean ezarritakoaren arabera (II. Eranskina), Berritzeguneetako toki-mintegietan izendatutako arduradunak, behintzat, parte hartzeko konpromisoa hartuko du, proiektu hauetan parte hartuko duten ikastetxeen elkargune izateko, ikastetxeak koordinatzeko eta ikastetxeei aholkularitza eskaintzeko.
- f) Dagokion proiektuan hala zehazten bada, proiektua koordinatzeko talde bat sortzeko konpromisoa hartuko da. Koordinazio-talde horrek ikastetxea ordezkatu du eta bertan zuzendaritza-taldeko pertsona batek gutxienez parte hartuko du; bere lana arduradunari edo arduradunei laguntzea izango da.

**Laugarrena.- Eskaerak eta dokumentazioa****1) Lehen aldiz garatzen diren proiektuak**

Parte hartu nahi duten ikastetxeek honako dokumentu hauek aurkeztuko dituzte:

- a) Eskaera; Jarraibide honetako I. Eranskinean dagoen eredu normalizatuari lotuko zaio.
- b) II. Eranskinean zehaztutako proiektu-mota bakoitzean eskatutako berariazko eranskinak.
- c) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, eskatutako proiektuetan zehaztutako konpromisoak bere gain hartzen dituenak. (III. Eranskina)
- d) Ikasturtean proiektua planifikatu, gauzatu eta hedatzeko gauzatuko den hezkuntza-jardueraren laburpena, proiektu-mota bakoitzerako zehaztutakoaren arabera; bertan etengabeko ebaluazioa egiteko aurreikusitako helburuak zenbateraino lortu diren jasoko duten adierazleak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dira (IV. Eranskina)
- e) Klaustroaren Akta, bertan honako hau zehaztuko da: Klaustroak baduela proiektuaren/proiektuen berri eta ikastetxearen barne-antolaketan eta prestakuntza-jardueretan izan ditzakeen/ditzaketen eraginak onartzen dituela. (V. Eranskina)
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren Akta, bertan eskaerarekin bat datorrela adieraziko du, eskola-komunitatea osatzen duten pertsonak proiektuan inplikaturik daudela ziurtatuko du eta proiektua, onartzen bada, eraginkorra izateko eta ikastetxearen urteko planean txertatzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartuko du. (VI. Eranskina)

**2) Jarraipen proiektuak**

- a) Eskaera; Jarraibide honetako I. Eranskinean dagoen eredu normalizatuari lotuko zaio.
- b) Garatzen ari den proiektuari buruzko aldaketak izatekotan, hauen azalpena III. eta IV. Eranskinen arabera.
- c) II. Eranskinean zehaztutako proiektu-mota bakoitzean eskatutako berariazko eranskinak.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia**

1.- Eskaerak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 10ean bukatuko da, egun hori barne.

2.- Eskaera osoa batera aurkeztuko da proiektu-mota guztietarako, zenbat eta zein proiektu-mota aurkezten diren kontuan hartu gabe. Eskaera Hezkuntza Berriztatze Programen Lurralde-arduradunei zuzenduko zaie eta dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko da.



3.- Dokumentazio guztiaren hiru ale aurkeztuko dira (originala eta 2 fotokopia).

4.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, 38.4 artikuluan, aurreikusitako egoitzetan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak. Ikastetxeak eskaera postetxe batean aurkeztea erabakitzen badu, gutunazal irekian aurkeztuko du postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion ziurtatu aurretik. Ikastetxeetako erregistroak ez dira sartzen aipatutako Legearen 38.4 artikuluan jasotako egoitzen artean.

### **Seigarrena.- Aukeraketa Batzordea**

Aukeraketa Batzordeak aurkeztutako eskaerak barematuko ditu eta aukeratutako ikastetxeen zerrندا osatuko du; honako hauek izango dira batzordekideak:

- a) Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona; lehendakari-lanak egingo ditu.
- b) Hezkuntza Berriztatzeko Programen Lurralde-arduradunak edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak.
- c) Irakasleen Hobekuntzarako eta Berrikuntzarako Zerbitzuen buruak.
- d) Ikuskari nagusiak izendatutako ikuskari bat.
- e) Berritzegune Nagusiko zuzendaria eta Zonaldeko Berritzeguneko zuzendari bat, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendatuta.
- f) Ikastetxeen Zuzendaritzak izendatutako teknikari bat.
- g) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuta; idazkari-lanak egingo ditu.

Aukeraketa Batzordeak ildo nagusien eta/edo programen arduradunen eta/edo Berritzeguneetako aholkularien laguntza eta/edo txostenak eskuratuko ditu aurkeztutako eskaerak zuzen ebaluatzeko eta aztertzeko beharrezko jotzen duenean.

Aukeraketa Batzordeak hautatuko ditu proiektuak, esleituko ditu diru-dotazioak edo ordu-kredituak, eta bere erabaki-proposamena Sailburuordetzan aurkeztuko du. Nolanahi ere, Batzordeak erabaki ahal izango du ikastetxe bakoitzeko gehienez zenbat proiektu onetsiko diren, neurriaren eta aurreko ikastaroetan izandako parte-hartzearen arabera, eta aldi berean proiektu bakoitza garatzea bideragarria den ere kontuan hartuko du. Era berean, proiektu bakoitzean, aukeratu ahal izateko bere ustez sartu beharko lirakekeen aldaketak ere proposatu ahal izango ditu.

Batzordearen behin-behingo erabakia 2009ko ekainaren 22tik aurrera emango da argitara eta behin betikoa 2009-10 ikasturtearen hasieran. Ikastetxeek 4 eguneko epea izango dute, behin-behingo erabakia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, beharrezko iruditzen zaizkien erreklamazioak egiteko. Salbuespen gisa, Curriculum Anitzeko taldeak eratzeko proiektuen behin-behingo ebazpena uztailaren lehenengo hamabostaldira atzeratuko da.



### **Zazpigarrena.- Erabakia hartzeko prozedura**

Aurkeztutako proiektuak II. Eranskinean adierazitako proiektu-mota bakoitzari dagokion baremoaren arabera baloratuko dira. Nolanahi ere, honako puntuazio hauek erantsiko zaizkie guztiei:

#### 1. Egoera sozio-ekonomikoa

Bekadunak % 10 baino gutxiago	0 puntu
% 10tik 20ra bitartean. . . . .	1 puntu
% 21tik 25era bitartean. . . . .	2 puntu
% 26etik 30era bitartean . . . . .	4 puntu
% 31etik 35era bitartean. . . . .	6 puntu
% 36etik 45era bitartean. . . . .	8 puntu
% 45etik gora. . . . .	12 puntu

Puntuazio hori ofizioz esleituko da Hezkuntza Administrazioak erabilgarri dituen datuen arabera.

### **Zortzigarrena.- Aukeratutako ikastetxeen betebeharrak**

Aukeratzen diren ikastetxeek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kasu bakoitzean proiektu-mota bakoitzerako ezarritakoak, II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera.
- b) Proiektuaren arduradunak, zuzendaritza-taldearekin eta, hala balegokio, talde koordinatzailearen laguntzaz, proiektua abian jartzea eta irakasleek, ikasleek, familiek eta ikastetxeko beste hezkuntza-eragile batzuek proiektuan parte hartzea dinamizatuko du.
- c) Arduradunak proiektu-mota bakoitzerako ezarritako denbora eskainiko dio ikasturtean zehar proiektuari eta proiektuaren arrakasta bermatzeko beharrezko diren prestakuntza-jarduerak planifikatu, koordinatu eta garatuko ditu; jarraitutasuna dagozkien aktetan jasota garatuko da.
- d) Irakasleen ordutegia planifikatzean, ikastetxeak kontuan izango du proiektuaren arduradunak Berritzeguneetatik antolatutako koordinazio- eta prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izan behar duela proiektua behar bezala garatzeko.
- e) Ikastetxeak jasoko lituzkeen diru-dotazioak kasu bakoitzean proiektu-mota bakoitzerako ezarritako helburuetarako erabiliko dira, II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera.

***Bederatzigarrena.- Ikastetxeentzako baliabideak***

Aukeratu diren ikastetxeek honako baliabide hauek izango dituzte:

- a) Proiektu-mota bakoitzarentzat zehaztuta lehenengo jarraibidean aipatzen diren diru-zuzkidurak eta/edo ordu-kredituak eta baimenak, II. Eranskinean adierazitakoaren arabera.
- b) Proiektuaren ardura hartuko duten eta/edo proiektuan inplikatzeko diren pertsonentzat proiektua garatzeko eta dinamizatzeko prestakuntza, modalitate bakoitzarentzat II. Eranskinean adierazitakoaren arabera.
- c) Berritzeguneen laguntza hirugarren jarraibideko e) atalean aipatutako toki-mintegien bidez.
- d) Saileko zerbitzuek prestatutako berariazko material didaktikoak, proiektu-mota bakoitzarentzat ezarritakoaren arabera.

***Hamargarrena. – Proiektuaren Memoria eta Parte-hartzearen ziurtagiria***

Ikastetxeak ikasturtearen amaieran, eta proiektu bakoitzean, eta, nolana ere, antzeko beste deialdi batzuetara aurkeztu ahal izateko, proiektuaren garapena deskribatzen duen memoria bat egingo du, eta horrela arautzen den proiektuetan, irakasleriaren parte-hartzea proiektuen garapenerako antolatutako ekintza eta saioetan, horretarako [www.proiektuak.net](http://www.proiektuak.net) web orrian agertzen den inprimakian.

Memoria horretan proiektuarekin zer lortu den zehaztuko da, proiektuan bertan aurrez ezarritako ebaluazio-adierazlearen arabera. Aipatutako memoria horrekin batera (proiektu bakoitzeko) honako ziurtagiri hauek aurkeztuko ditu Ikastetxearen Zuzendaritzak:

1. Proiektua gauzatzeko emandako baliabideekin lortu nahi zen helburua bete dela jasotzen duen ziurtagiria. (VII. Eranskina)
2. Proiektuan parte hartu duten irakasleen izen-deiturak, sexua eta NA zenbakia jasotzen duen ziurtagiria (VIII. Eranskina), bakoitzaren parte-hartzearen portzentajea zehaztuta, adierazitako proiektuetan eta bakoitzean zehaztutako baldintzetan (Inprimakia web orrian egongo da eskuragarri)

Memoria hori baloratu egingo da hurrengo deialdietan, deialdirik egingo balitz, proiektuarekin jarrai daitekeen erabakitzeko. Memoria aurkezteko azken eguna 2009ko maiatzaren 20a izango da.

Baiezko balorapena izan duten proiektuetan, irakasleek parte-hartzea ofizioz ziurtatuko da, baldin eta gutxieneko parte-hartzea % 80koa izan bada.

Nolana ere, irakasle berari eta ikasturte berean ez zaizkio 105 ordu baino gehiago zenbatuko Hezkuntza Berriztatzeko eta Prestakuntzako Proiektuetan parte hartzeagatik, deialdi honetan zehaztutakoak izan edo antzeko beste batzuk izan.

***Hamaikagarrena.- Jarraipena eta ebaluaketa***

Ordu-kreditua eta/edo baimena ematen zaien ikastetxeek aurkeztutako proiektuak behar bezala gauzatuko direla bermatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak, bere zerbitzuen bidez, proiektuen gauzatzeko-maila aztertuko du ikasturtean zehar egindako ebaluazioan, ikastetxeak igorritako memorian eta eskuratzea beharrezko ikusten duen beste edozein datu edo txostenetan oinarrituta.

***Hamabigarrena.- Datuak babestea***

Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera, deialdi hau tramitzatzeko jasotako datuak –deialdian parte hartzeak erabiltzeko eta argitara emateko baimena ematen du– fitxategi batean sartuko dira deialdi hau eta deialdiarekin zerikusia duten bestelako administrazio-espeditente edo prozedura guztiak kudeatzeko eta deialdira aurkeztu diren pertsonen garapenaren berri emateko. Fitxategiaren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuetan sartzeko, datuak zuzendu, ezereztu eta aurkatzeko eskubidea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan gauza daiteke, honako helbide honetan: Donostia-San Sebastián kalea, 1- 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei lagatzeko deialdiaren xedearekin zerikusia duten helburuetarako, eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote aurkeztutako agirien egitasuna beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko.

Gasteiz, 2009ko maiatzaren 29an

Maria Antonia Ozcáriz Rubio

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



## HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO LEHENTASUN ILDOAK GARATZEKO PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

### I. ERANSKINA

Ikastetxea: .....

Kodea:

--	--	--	--	--	--

.....jaunak/andreak aipatutako ikastetxeko  
(herria:....., telefonoa:....., .faxes:....., e-mail .....) zuzendaria den aldetik, hauxe

**ADIERAZI DU:** Sailaren lehentasun ildoak garatzeko programak burutzeko jarraibideen berri baduela eta ordezkatzeko duen ikastetxeak jarraian adierazten direnetan parte hartu nahi duela.

<b>Eskaera</b>			<b>Proiektuaren izena</b>	<b>Mota</b>
<b>Berria</b>	<b>Jarraipena</b>	<b>ikasturtetatik parte hartzen du</b>		
			P1- Kultura Arteketasuna sustatzeko Proiektua	
			P2- Hizkuntza Indartzeko Proiektua	
			P3- Eskola-laguntza programa ezartzeko Proiektua	
			P4- Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko Proiektua (HBEP)	Kurtsoaren egitura aldatu
				Curriculum aldatu
				Aparteko langile-baliabideak eskatzen dituzten aldatetako antolaketan
			P5- Curriculum Aniztasuneko Taldeak onartzeko Proiektua	Ikasturte 1ekoa
				2 ikasturtekoa (1. urtea)
				2 ikasturtekoa (2. urtea)
			P6- "Kalitatea Hezkuntzan" Proiektua	
			P7- "Ikastetxearen autonomia" Proiektua	
			P8- Ikastetxeko elkarbizitza-plana egiteko eta Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko Proiektua	
			P9- "Ikas Komunitateak" Proiektua	I. Modulua
				II. Modulua
			P10- "IKT Ikastetxe Ereduaren" Proiektua	
			P11- Irakaskuntza eleanitzeko Proiektua Bigarren Hezkuntzan	
			P12- "Zientzia Hezkuntza" Proiektua	



Gainera, adierazten du eskuarki parte hartzen duela jarraian adierazitako programetan (*X* batez markatu):

Izena	2008/2009 ikasturtea	Aurreko ikasturteak	2009/2010 ikasturterako aurreikuspena
Ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak			
PROA indartze programa			
MUS-e programa			
Osasun-hezkuntza			
Eskola Ibiltariak			
Eskola-trukeak (Europa)			
Comenius (Sócrates programa ohia HHI)			
Grundtvig (Helduak HHI)			
Globe Proiektua (Europa)			
ELOS Proiektua (Europa)			
Normalkuntza Plangintza (Ulibarri)			
Literatura-ibilbideak			
Ingurumena eta garapen iraunkorra- Agenda 21			
On-line Irakaskuntza (ikasgai telematikoak)			
ACEX			
Hezkuntza Berrizatzeko eta Prestakuntzako Proiektuak			

ESKATZEN DU: Parte hartzeko gure asmoa kontuan hartuta, eta baldintzak betetzen ditugula aurrez egiaztatuta, adierazitako programan edo programetan parte hartzeko baimena eman diezaiola baimen-erabakian jasotako baldintzen arabera.

Jarraian adierazten diren dokumentuen bina ale erantsiko dira:

- Eskaera (I. Eranskina).
- Proiektuen koordinatzaileak / arduradunak eta parte-hartzeko konpromisoak zehazten dituen Zuzendaritzaren ziurtagiria (III. Eranskina).
- Eskatutako proiektu-mota bakoitzerako aurreikusitako hezkuntza-jardueraren laburpena (IV. Eranskina).
- Eskaeraren berri baduela adierazteko Klaustroaren Akta. (V. Eranskina).
- Onespena emateko Ordezkaritza Organo Gorenaren Akta (VI. Eranskina)

.....,(e)n, 2009ko.....aren.... (e)an.

ZUZENDARIA

(sinadura eta zigilua)

### III. ERANSKINA



Zuzendaritza honek, jarraibide hauetan ezarritakoaren eraginetarako, ziurtatzen du honako irakasle hauek proposatu direla eskatutako proiektuen koordinazio- edo arduradun-lanak egiteko:

Proiektuaren izena	Koordinatzailea edo arduraduna/k	Espezialitatea	HE	NA	Administrazio-egoera
P1- Kultura Artekotasuna sustatzeko Proiektua					
P2- Hizkuntza Indartzeko Proiektua					
P3- Eskola-laguntza programa ezartzeko Proiektua					
P4- Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua (HBEP)					
P5- Curriculum Aniztasuneko Taldeak onartzeko Proiektua					
P6- "Kalitatea Hezkuntzan" Proiektua					
P7- "Ikastetxearen autonomia" Proiektua					
P8- Ikastetxeko elkarbizitza-plana egiteko eta Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko Proiektua					
P9- "Ikas Komunitateak" Proiektua					
P10- "IKT Ikastetxe Ereduaren" Proiektua					
P11- Irakaskuntza eleanitserako Proiektua Bigarren Hezkuntzan					
P12- "Zientzia Hezkuntza" Proiektua					

eta hauek bere gain hartzen dituzte jarraibide hauetan proiektu-mota bakoitzarentzat ezarritako konpromisoak.

.....(e)n, 2009ko .....aren.....(e)an.

ZUZENDARIA

(sinadura eta zigilua)



## IV. ERANSKINA

### PROPOSATUTAKO HEZKUNTZA JARDUERAREN LABURPENA

(Eskatutako proiektu-mota bakoitzeko III. Eranskin bat erantsiko da)

PROIEKTUAREN TITULUA.....

IKASTETXEA:.....

LURRALDEA:.....

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

1. Justifikazioa.
2. Ikastetxearen abiapuntuko egoera.
3. Garatuko den proiektuaren planifikazioa:
  - 3.1. 2008-2009 ikasterterako proposatutako helburuak.
  - 3.2. Jarduerak eta tenporalizazioa.
  - 3.3. Aurreikusten diren partaideak (irakasleak, ikasleak, beste batzuk).
  - 3.4. Ebaluazioa eta lorpen-adierazleak.
4. Dagokion proiektu-motarako II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera eskatzen diren beste berezitasun batzuk.

**V. ERANSKINA**  
**KLAUSTROAREN AKTA**

.....  
.. ikastetxeko irakasleen Klaustroak bilkura berezia egin du 2009ko..... aren .....  
(e)an, ..... e(t)an. Klaustroak bere jardunerako ezarritako legezko baldintzak  
betetzen dituela eta Lehentasun lldoekin zerikusia duten proiektuak eskatzeko Hezkuntza  
Sailburuordetzaren Jarraibideetan ezarritako betekizunak aintzat hartuta, hauxe adierazten  
du: irakasle guztiek dutela aurkeztutako proiektuaren/proiektuen berri eta proiektuan edo  
proiektuetan parte hartzeagatik irakasleek zein ikastetxearen barne-antolamenduak jasan  
ditzaketen ondorioak bere gain hartzen dituela.

..... (e)n, 2009ko.....aren.....(e)an.

KLAUSTROAREN BURUA

(sinadura eta zigilua)



## VI. ERANSKINA

## ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN AKTA

.....ikastetxek  
o Ordezkaritza Organo Gorenak, 2009ko .....aren .....(e)an  
egindako bilera berezian, .....

.....  
jaun-andreak bertan direla gurasoen ordezkari gisa, .....

.....  
jaun-andreak irakasleen ordezkari gisa,.....

.....  
jaun-andreak ikasleen ordezkari gisa eta .....

.....  
jaun-andreak irakasle ez diren langileen ordezkari gisa, eta ikastetxeko  
zuzendari.....

jaun-andrea buru dela, Jarraibideetan 2009-2010 ikasturtean behean aipatutako proiektuak  
gauzatzeko eskaera egiteko ezarritako betekizunak betetzen direla kontuan hartuta,  
proiektuak gauzatzeko behar diren neurriak hartzeko eta, onetsiz gero, urteko planean  
sartzeko konpromisoa hartu du.

Eskatutako proiektuak:

1. ....
2. ....
3. ....
4. ....
5. ....
6. ....

..... (e)n, 2009ko .....aren.....(e) an.

ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO BURUA

(sinadura eta zigilua)



## VII. ERANSKINA

### MEMORIA EGITEKO ESKEMA OROKORRA

1.- Proiektuaren deskribapena; honako hau jasoko da:

- Burututako ekintza nagusiak.
- Proiektua ezarri izanaren ondorioz ikastetxearen antolaketari edo curriculumari dagokienez asumitutako akordio nagusiak, halakorik balego.
- Proiektua garatzean izandako gorabeherak, izan badira.
- Adierazgarri jotzen diren beste hainbat alderdi.

2.- Helburuak zenbateraino bete diren. Proiektuan jasotako helburu bakoitzaren azterketa eta lortu denaren balorazioa; helbururen bat lortu gabe geratu bada, zergatik ezin izan den lortu aipatuko da.

3.- Parte hartu duten aholkulariek egindako ekarpenen balorazioa, halakorik izan bada.

4.- Proiektuan parte hartu dutenek zenbateraino parte hartu duten eta ze inplikazio izan duten, eta garatutako edukiak eta hartutako erabakiak praktikan nola ezartzea aurreikusten den.

5.- Ondorioak eta jarraitzeko proposamenak.

6.- Parte hartu duten irakasleen zerrenda, honako hau zehaztuko da: izena eta bi deitura, NA, sexua, bakoitzak zein portzentajetan parte hartu duen. Datu horiek Prestakuntza Proiektuko jarduera bakoitzeko, Proiektu Orokorreko eta/edo Hezkuntza Berriztatze Ekintza bakoitzeko zehaztuko dira, Ikastetxearen Zuzendaritzak ziurtatuta (VIII, Eranskinaren arabera).

